



Esp. kodea: 2017SAPL0002

Gaia: PLENOA 2017/03/07
Hasiera eguna: 2017/02/28

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2017ko martxoaren 7a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2017ko otsailaren 7a egindako bileraren akta onartu du.

2.- A.E. 78 - ZABALETA (LEHEN A.E. 104) ESPARRUAREN HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIAREN ALDAKETA PUNTUALAREN DOKUMENTU BERRIA BEHIN BETIKOZ ONARTZEKO ONARPENAREN AURKA MARCELINO AMOZARRAIN KORTABARRIA JAUNAK EZARRITAKO 8/2017 ZK.KO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN AGERTZEKO DEKRETUAREN BERRI EMAN ETA BERRESTEA.

Osoko bilkurak aho batez berretsi du Alkatearen ebazpena.

3.-GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARRASATEKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA, "ARRASATEKO BEDOÑAKO GI-627-34 LOTUNEAREN BIDE-ADARRETAN BIRIBILGUNEA EGITEKO PROIEKTUA'REN OBRAK GAUZATU ETA FINANTZATZEKO, ETA AIPATUTAKO LOTUNEA BERE KONFIGURAZIO BERRIAN MANTENU ETA USTIATZEKO.

Osoko bilkurak aho batez onartu du hitzarmena sinatzea aipatutako obrak gauzatu daitezen. Hitzarmen honen helburua da obra horiek GFAk gauzatzea, dena den, Udalak 200.000 euroko aportazioa egingo du, ikusita egingo diren obretako batzuk udal eskumenekoak direla.

4.-SAN ANDRES AUZOKO UR BILTEGIAN TELEFONIA MUGIKORREKO ESTAZIOA JARTZEKO KOKAPEN BERRIAREN EGOKITASUNA AITORTZEKO ESPEDIENTEA ERABAKITZEKO PROPOSAMENA

Gai hau mahai gainean geratu da.

.

5.-URAREN ZIKLO INTEGRALAREN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA

Osoko bilkurak aho batez onartu du uraren ziko integralaren ordenantzaren hasierako onarpena. Ordenantza honen helburua da ur zerbitzua arautzea eta finkatzea zeintzuk diren alderdien eskubide eta betebeharra, besteak beste.

6.- LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEA.



Esp. kodea: 2017SAPL0002

Gaia: PLENOA 2017/03/07
Hasiera eguna: 2017/02/28

Aldeko 19 boto (beste alderdi guztiak) eta abstentzio 1ekin (IRABAZI) onartu da Arrasateko Udala Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espaziora atxikitzea. Organo honen helburua da Foru Aldundia eta udalen arteko gune bat sortzea partehartzearen inguruko gaiak eztabaidatu eta aztertzeko.

7.-TRANSFORMADOREA KENTZEAREN INGURUAN, ARRASATE HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Aipatutako mozioa aho batez onartu da.

8.- FRANKISMOAREN BIKTIMEI JUSTIZIA EGITEAREN INGURUKO MOZIOA

Aipatutako mozioa aho batez onartu da.

9.- EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO MOZIOA.

Aldeko 19 boto (beste alderdi politiko guztiak) eta abstentzio batekin (IRABAZI) onartuta gelditzen da aurkeztutako mozioa.

10.-GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRAREN INGURUKO MOZIOA.

Aldeko 19 (gainontzeko alderdi politiko guztiak) eta abstentzio batekin (IRABAZI) mahai gainean gelditzen da aurkeztutako mozioa.

11.-DISPERTSIOAREN AURKA, EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Bertaratutako PSEko bi kideek bilkura utzi ondoren, aho batez onartu da (aldeko 18 boto) EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioa.

12.-ALKATE KURDUEKIN ELKARTASUNA ADIERAZTEKO, EH-BILDU, BALEIKE ETA IRABAZI UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Aho batez onartu da aurkeztutako mozioa.

13.-AURREKONTUKO SOBERAKINA GIZARTE-LANERAKO ENPLEGU PLANAK SORTZEKO ERABILTZEKO, IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Aldeko hiru boto (BALEIKE eta IRABAZI), kontrako 10 (EAJ eta PSE) eta 7 abstentziorekin (EH BILDU) ez da onartu aurkeztutako mozioa.

14.-GENERO IKUSPEGIA UDAL POLITIKAN TXERTATZEKO, BALEIKE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Aldeko hiru boto (BALEIKE eta IRABAZI), kontrako 10 (EAJ eta PSE) eta 7 abstentziorekin (EH BILDU) ez da onartu aurkeztutako mozioa.

15.-2018KO AURREKONTUAK PARTEHARTZAILEAK IZATEKO ESKAERAREN



Esp. kodea: 2017SAPL0002

Gaia: PLENOA 2017/03/07
Hasiera eguna: 2017/02/28

INGURUAN, BALEIKE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Mozioa aurkeztu duen BALEIKE udal taldeak, mozioa erretiratu du.

Arrasaten, 2017ko martxoaren 7an

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta